


Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Departamento de Cultura,  
Turismo, Juventud y Deportes



# OZTOPORIK GABEKO KIROLA





OZTOPORIK GABEKO  
KIROLA



## 1 KIROLA, INKLUSIOA ETA ONGIZATEA

Kirola oso garrantzitsua da pertsona guztien —desgaitasunen bat dutenak barne— ongizate eta bizi-kalitatearentzat. Egoera fisikoa hobetzen laguntzen du kirolak, baina beste zenbait eragin positibo ere baditu:

- Prebentzioa eta osasunaren hobekuntza.
- Ekitatea eta gizarteratzea.
- Oztopoak gainditzea eta dibertsitate funtzionala integratzea.

**Kirolean desgaitasunari arreta eskaintzeko Gipuzkoako eredia Mugiment** ekimenaren barruan kokatzen da, eta desgaitasuna duten pertsonen kirola egiteko bidea ematea du xedetzat, haien bizi-kalitatea hobetzeko benetako eskubide bat den heinean.



DEPORTE  
SIN BARRERAS



ORAIN  
KIROLA

## 2 OZTOPORIK GABEKO KIROLA

**Gipuzkoako biztanleriaren % 7k deklaraturako desgaitasun bat du eta eraginpeko pertsonen kopurua % 10 inguru izan daiteke (50.000 pertsona baino gehiago).** Horietatik % 50 pertsona ez-aktiboak dira, askotan zailtasunak aurkitzen dituztelako kirola egiteko bidea erraztuko lieketen zerbitzuetara iristeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA), Lurraldeko hainbat agenteren —Kirol Egokituko Federazioa (KEF), Hegalak, udalak, elkarteak, etab.— laguntzarekin, kirolean desgaitasunari arreta eskaintzeko eredu berri bat definitu du 2018an, pertsona guzti-guztiek kirola egiteko aukera izan dezaten Gipuzkoako ongizate-sistemaren esparruan.



OZTOPORIK GABEKO  
KIROLA



## 2 OZTOPORIK GABEKO KIROLA

Hona hemen ereduaren helburuak:

- Bizitza aktiboan eta kirolean parte hartzeko aukera bermatzea.
- Lurraldean zerbitzu-eskaintza normalizatu bat edukitzea.
- CGFAren, kirol egokituko agenteen eta beste agente batzuen (Osakidetza edo gizarte-zerbitzuak) arteko jarduna koordinatzea.
- Desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzean aurrera egitea.



DEPORTE  
SIN BARRERAS



ORAIN  
KIROLA

## 2.1. Desgaitasuna duten pertsonentzako eredu bat

Arreta-eredu berriaren helburu nagusia da oztopoak kentzea eta kirolean sartzeko aukera bermatzea eskubide bat den heinean, baita desgaitasuna duten pertsonentzat ere, lau jardun-ardatzetan oinarrituta:

- **Sartu:** zerbitzu orokorrak egokitzea desgaitasuna duten pertsonen inklusioa errazteko.
- **Segi:** kirol-jarduera egokituko lerro espezifikoak sortzea, nola jolaserako, hala lehiaketarako.
- **Ongisegi:** arreta indibidualeko programak jarduera kolektibo egokituetarako (Segi) bidea errazteko.
- **Hobesegei:** muga ekonomiko handiez gain senitarteko bat desgaitasun-maila handiarekin duten bizikidetzta-unitateentzako programak.






OZTOPORIK GABEKO  
KIROLA



## KIROLEAN DESGAITASUNARI ARRETA ESKAINTZEKO GIPUZKOAKO EREDUA





DEPORTE  
SIN BARRERAS



ORAIN  
KIROLA

### 3. HELBURUA: DESGAITASUNA DUTEN 2.500 KIROLARI GEHIAGO

2018an abian jarritako eredu berriak Plan bat aurreikusten du, desgaitasuna duten 2.500 pertsona gehiago bildu nahi dituena; une honetan pertsona horiek ez dute kirolrik egiten, eta kolektiboaren % 5 eta ez-aktiboen % 10 dira guztira.

2018an abian jarritako Planak 14 jardun aurreikusten ditu, eta guztira 400.000 euro inbertituko dira lau eremutan banatuta:

- Herritarrak oro har.
- Eskola Kirola.
- Desgaitasuna duten kirolariak.
- Erakundeak, gizarte-agentek eta profesionalak.



OZTOPORIK GABEKO  
KIROLA



ORAIN  
KIROLA

## 3.1. Herritarrak, oro har

Herritar guztientzako zerbitzuak dira, eta beraz, ez dago zertan elkarte edo kolektibo espezifiko baten kide izan:

- **Kirol egokituko zerbitzu eta eskaintzei buruzko aholkularitza**, Kirol Egokituko Federazioaren bitartez. 943 462 514 / [info@gkef-fgda.org](mailto:info@gkef-fgda.org)
- **Kirol Orientazioko Zerbitzuak**: udalerrian, desgaitasuna duten pertsonentzat eskuragarri dauden kirol-baliabideei buruzko orientazioa ematea.
- **Hegalak programak**: Hegalak Fundazioaren arreta-programak, betekizunak (minusbaliotasuna, ekonomikoak, etab.) betetzen dituzten pertsonentzat.
- **Trebakuntza-jardunaldiak**: interesdun guztientzat irekiak eta Kirol Egokituko Federazioak antolatuak.





DEPORTE  
SIN BARRERAS



ORAIN  
KIROLA

## 3.2. Eskola Kirola

Desgaitasuna duten ikasleak Eskola Kiroleko jardueretan sar daitezela errazteko zerbitzuak:

**Eskola-kirol inklusiboa:** baliabide eta laguntzak hornitzea, desgaitasuna duten ikasleek eskola-kirolean modu inklusiboan parte hartzeko aukera izan dezaten (KEF).

**Eskola-kirol egokitua:** oeskaintza berezia eskola-kirolean modu inklusiboan parte hartzerik ez duten ikasleentzat (KEF): Andoain, Beasain, Bergara, Hondarribia, Irun, Donostia, Ordizia, Zarautz, Villabona eta Urretxu.

**Eskola-kirol egokituko gida:** seskola-kiroleko programan bildutako jarduerak garatzeko gida bat argitaratuko da (KEG).



OZTOPORIK GABEKO  
KIROLA



### 3.3. Desgaitasuna duten kirolariak

Desgaitasuna duten errendimenduko kirolarientzako jarduera eta zerbitzuak:

- **Txapelketa ofizialak:** kirol egokituko txapelketak antolatzea: igeriketa, txirrindularitza, slaloma, boccia, atletismoa eta goalballa (KEF).
- **Teknifikazioa:** errendimendua edukitzeko ezaugarriak dituzten kirol egokituko kirolarientzako programak.
- **Etorkizuneko kirolariak eta talentuak:** talentua eta etorkizuna duten kirol egokituko kirolarientzako laguntzak (18 urtetik azpikoentzat).
- **Kirolgi:** kirol egokituko goi-mailako kirolarientzako laguntzak (18 urtetik gorakoentzat).



DEPORTE  
SIN BARRERAS



ORAIN  
KIROLA

### 3.4. Erakundeak, gizarte-agentek eta profesionalak

Udalei eta kirolaren munduko klub, elkarte, teknikari eta profesionaleri laguntza tekniko eta ekonomikoa eta prestakuntza emateko programak.

- **Inklusiorako laguntza:** desgaitasuna duten pertsonei klub eta udaletako ohiko kirol-jardueretan sar daitezela laguntzeko programa (laguntza eta aholkularitza) (KEF).
- **Desgaitasunera hurbiltzea:** kiroldegietako langileei prestakuntza emateko ikastaroa, KEFarekin elkarlanean.
- **Desgaitasuna duten pertsonentzako kirol-jarduerak sustatzea:** laguntza ekonomikoak antolatzaileentzat (klubak, irakaskuntza-zentroak, udalak, etab.).



OZTOPORIK GABEKO  
KIROLA



ORAIN  
KIROLA

## 4. Sozializazioa

Deskribatutako programak sozializatzeko helburuarekin, GFAk honako jardun hauek aurreikusi ditu:

- Desgaitasuna duten pertsoneri kirolean sartzeko bidea errazteko programa eta jardunen **Gida** oso bat argitaratzea.
- Datorren maiatzaren 24an Miramar Jauregian, **kirol-politikak, desparekotasuna eta gizarteratzea** izeneko jarduera antolatzea.



# OZTOPORIK GABEKO KIROLA

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Departamento de Cultura,  
Turismo, Juventud y Deportes



**mugiment**  
persona aktiboak